

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 4546

*AGINDUA, 2015eko urriaren 21ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren babespeko diru-laguntzetarako deialdia egin duena 2015erako. Izan ere, euskal nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren eremuan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak ezarri ditu dekretu horrek.*

2007ko azaroaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 218. zenbakian 185/2007 Dekretua, urriaren 23koa, euskal nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren eremuan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak ezartzen dituena. Azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori, eta haren helburua da: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako arlo zientifiko-teknologikoan, merkatuetan, marketinean eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzeko laguntzen esparrua ezartzea eta arautzea.

Aipatutako dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, urtero zabalduko da, sailburuak hala aginduta, laguntza-eskabideak aurkezteko epea. Bestalde, deialdiko aginduan honako hauek adierazi behar dira: aurrekontu-kreditu erabilgarria; deialdiko beka-kopurua eta bakoitzaren zenbatekoa; ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko, estrategikotzat eta lehentasunezkoztat jotzen diren I+G+Bko proiektuen zerrenda jasotzen duen eranskina; eta, deialdi horretarako normalizatu-tako eskabide-eredua jasotzen duen eranskina.

Horiek guztiak horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntza eta diru-laguntzei aplikatu dakizkiekeen gainerako xedapenekin bat,

### EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Laguntzak.

1.– 2015eko ekitaldirako, beka hauen deialdia egiten da: doktoratu aurreko beken programako sei beka, eta teknologoak prestatzeko beken programako hamar beka.

2.– Agindu honetako I. eranskinean dago jasota Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren iritziz 2015eko ekitaldiko deialdian ikertzaile eta teknologoak prestatzeko beka-programarako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+Bko proiektuen zerrenda.

Bigarrena.– Iraupena.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzak badira, kontratuak urtebete iraungo du, eta urteko luzapenak egin daitezke. Ezin izango du inola ere lau urte baino gehiago iraun, kontuan hartuta hasierako kontratuko iraupena eta egindako luzapenak.

Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez, nahiz eta dekretuan xedatzen den laguntzek ondoz ondoko bi urteko iraupena edo urtebetekoa izan dezaketela, kasu honetan, emango diren laguntza guztiek bi urteko iraupena izango dute.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

2015eko ekitaldian, urriaren 23ko azaroaren 185/2007 Dekretuak araututako laguntzen eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– 2015eko ekitaldiko laguntza-eskaerak agindu honen II. eranskinean dagoen eredu normalizatuan aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari zuzenduta (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak helbide horretan bertan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan aurreikusitako beste edozein bide erabili ahalko da. Eskatzaileak eskabidea postetxeren batean aurkeztu nahi badu, gutun-azal ireki bat eraman beharko du, postetxeko funtzionarioak eskabideari data eta zigilua jar diezazkion eta gutuna ziurta dezan.

3.– Eskabidearekin batera, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 10.1 artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

4.– Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean jasotako guztien artean 3na aukeratu ditzakete gehienez.

Bosgarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Laguntza-deialdi hau finantzatzeko kredituak EAEko aurrekontu orokorren kontura ordainduko dira (EAEko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legearen bidez onartuta, 2015eko ekitaldirako). Kredituen guztirakoa 699.920 eurokoa da; horietatik, 57.495 euro 2015erako ordainketa-kredituei dagozkie, eta gainerako 642.425 euroak 2016tik 2019ra bitarteko ekitaldietarako konpromiso-kredituei dagozkie.

Gizarte Segurtasunari atxikitzearen ondoriozko gastua (urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan xedatuta) 137.610,48 eurokoa; horietatik 9.350,70 euro 2015erako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 128.259,78 euro konpromiso-kredituari.

Seigarrena.– Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak.

2015eko ekitaldian, laguntza-eskatzaileek egiaztatuta izan behar dituzte betekizun hauek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako:

a) Europar Batasuneko hiritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Ondorio horietarako, eskatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea, deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez. Dena dela, onartu egingo dira, eskakizun hori bete ez arren, inoiz EAEn erroldaturik egon baina ikasketak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egin dituzten eskatzaileak.

c) Doktoratu aurreko beken programarako, honako titulu hauetako bat izan behar dute:

– Unibertsitate-graduak eta -masterreko espainiar titulu ofiziala. Ikasketa horien guztien iraupena 300 ECTS kreditukoa izango da gutxienez.

– Espainiako unibertsitate-titulu ofiziala (Lizentzia, Arkitektura, Ingeniaritza, Arkitektura teknikoa, Ingeniaritza teknikoa, Diplomatura), edo Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparrua osatzen duen beste herrialde batekoa, masterrerako sarbidea lortzeko gaitzen duena, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta unibertsitate-ikas-keta ofizial guztietan 300 ECTS kreditu gutxienez gainditu izana, eta horietatik, gutxienez 60 master-mailakoak izango dira.

– Doktorego-ikasketetan sartzeko titulua ematen duen herrialdean ahalmena ematen duten atzerriko hezkuntza-sistemen arabera lortutako titulua.

d) Teknologoak prestatzeko beken programarako, honako titulu hauetako bat izan behar dute:

– Graduako espainiar titulu ofiziala.

– Espainiako unibertsitate-titulu ofiziala, edo Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparrua osatzen duen beste herrialde batekoa, edo doktorego-ikasketetan sartzeko titulua ematen duen herrialdean ahalmena ematen duten atzerriko hezkuntza-sistemen arabera lortutakoa.

e) Titulu hori lortzeko ikasketak amaitu behar izan dituzte 2011ko ekainean edo geroago.

f) Teknologo gazteak prestatzeko laguntzetarako, ezin izan dute beste antzekorik izan, hau da, nekazaritzako, arrantzako eta elikadurako eskumena duen sailak emandako antzekorik.

g) Estatutik kanpo gauzatuko diren laguntzetarako, eskatzaileek nahiko ondo jakin behar dute laguntza gauzatzeko zentroa dagoen herrialdeko hizkuntza, edo bera gauzatzeko behar den hizkuntza teknikoa.

h) Ez dute izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barnean izanik, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat.

Zazpigarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Prestatzen ari diren ikertzaileak.

a) Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzek 16.330 euroko dotazio ekonomikoa izango dute urteko, gehi Gizarte Segurantzako urteko kuota.

b) Ikertzailea atxikita dagoen organismo, zentro edo erakundeak 21.563,77 euro jasoko ditu aurretiaz. Ikertzaileek, berriz, 16.330,00 euroko ordainsari gordina jasoko dute, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 16.1.c) artikuluan xedatutakoa gorabehera.

c) Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat izango dute; izan ere, laguntza bakoitzeko, gehienez 2.000 euro gehiago eskura dezakete urteko, gastuak ordaintzeko. Aldez aurretik justifikatuta, doktorego-ikastaroetan matrikulatzeko, zientzia-kongresuetan edo lan-saioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko, eta abarretarako erabiliko dute diru-kopuru hori.

2.– Teknologoak.

Teknologoak prestatzeko laguntzek 12.000 euroko dotazio ekonomikoa izango dute urteko, gehi Gizarte Segurantzako urteko kuota. Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat izango dute; izan ere, laguntza bakoitzeko, gehienez 1.000 euro gehiago eskura dezakete urteko, gastuak ordaintzeko. Aldez aurretik justifikatuta, zientzia-kongresuetan edo lan-saioetan parte hartzeko, beste

2015eko urriaren 28a, asteazkena

ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko, eta abarretarako erabiliko dute diru-kopuru hori.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa ezar dakiok Ingurumen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 21a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## I. ERANSKINA

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILAK ESTRATEGIKOTZAT ETA LEHENTASUNEZKOTZAT HARTUTAKO PROIEKTUEN ZERRENDA 2015EKO EKITALDIRAKO

1.– Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzak.

Iraupena: 4 urte

Zk.	Proiektuaren izenburua	Eskatzen diren tituluak
1	Nekazaritzako elikagaien hondakinak baloratzea nutrizio-elikagaietan eraldatzearen bidez.	Albaitaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Kimikako Gradua; Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua
2	Hautaketa genomikoa ezartzea esnetarako ardi latxak eta Karrantzakoak hautatzeko eskeman.	Albaitaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua
3	Hautapen genomikoa eta markatzaileek lagundua Elaeis generoaren olio-laborantzan	Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua; Kimikako Gradua
4	Klima-aldaketak arrantza-tokietan dituen eraginak ebaluatzea	Ingurumen Ingeniaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Matematikako Gradua; Itsas Zientzietako Gradua
5	Fagoak elikagaien segurtasuna kontrolatzeko baliabide gisa.	Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua
6	Arrantza-tokiak kudeatzeko kontseilu-jardueren balioa	Matematikako Gradua; Ekonomiako Gradua; Ingurumen Ingeniaritzako Gradua; Fisikako Gradua; Kimikako Gradua; Biologiako Gradua; Itsas Zientzietako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua

## 2.– Teknologoentzako prestakuntza-laguntzak.

Iraupena: 2 urte

Zk.	Proiektuaren izenburua	Eskatzen diren tituluak
1	Izurriteen eta gaixotasunen kontrol integratua: I+G+B nekazaritza sektorea produktu fitosanitarioen erabilera jasangarriari buruzko arau berrietara egokitzeko	Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua; Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Inguruneko Ingeniaritza.
2	Basafaunaren gaixotasunak aztertzea. Etxeko espezieak eta gizakiak kutsa ditzaketen patogenoak detektatzea	Albaitaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua
3	Mikobakteriosiak diagnostikatzeko eta kontrolatzeko baliabide berriak garatu eta aplikatzea	Albaitaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua
4	EAEko karakterizazioa eta oraingo eta geroko zonakatzeko edafiko eta klimatikoa	Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Geologiako Gradua; Informatikaren Ingeniaritzako Gradua; Kimikako Gradua; Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua; Mendi Ingeniaritzako Gradua; Basogintzako Ingeniaritzako Gradua
5	Arrantzako baliabideak kudeatzea ikuspegi multiespezifikoko batetik	Itsas Zientzietako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Biologiako Gradua; Matematikako Gradua; Informatikaren Ingeniaritzako Gradua
6	Arrasteko sare-andanaren eta itsas hegaztien interakzioa: arrantza-politika erkide berriaren inplikazioak	Itsas Zientzietako Gradua; Biologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Matematikako Gradua
7	Elikagaien teknologia, prozesuak eta produktuak ingurumenari begira ebaluatzea	Kimikaren Ingeniaritzako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua
8	Mendian ekoiztutako animalia-jatorriko produktuen nutrizio- eta zentzumena ezaugarriak identifikatzea	Elikagaien Teknologiako Gradua; Biologiako Gradua; Albaitaritzako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua
9	Testura egokituko elikagai berritzaileak diseinatzea eta garatzea	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Albaitaritzako Gradua
10	Fatxada eraikitzekeko soluzio eraginkorrak eta jasangarriak, Euskadiko radiata pinuaren zuraz ebatzita.	Arkitekturako Gradua; Ingeniaritza Zibileko Gradua Ingeniaritza Mekanikoko Gradua Ingurumen Ingeniaritzako Gradua; Arkitektura Teknikoko Gradua

## II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA  
SEKTOREETAKO ARLO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAN ETA ENPRESA ARLOAN, IKERTZAILE  
ETA TEKNOLOGO GAZTEAK PRESTATZEKO LAGUNTZA-ESKAERA 2015EKO EKITALDIRAKO

1.– Norberaren datuak.

Deiturak: .....

Izena: .....

NAN: ..... Sexua: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta-kodea: .....

Lurralde historikoa: .....

Telefonoa: ..... Helbide elektronikoa: .....

2.– Datu akademikoak.

Tituluak: .....

Titulua zein ikastetxetan lortu den: .....

Titulua lortu zen data: .....

3.– Eskatu den beka-programa.

Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzerako jasotako 3na gai aukeratu ahal izango dituzte. Gaien hautaketa diru-laguntzak esleitzerakoan jarraitutako lehentasun-ordenaren arabera egin beharko da.

Ordena	Proiektuaren izenburua
1	
2	
3	

4.– Eskatzaile guztiek aurkeztu beharreko AGIRI OROKORRAK.

a) Ikasketen ziurtagiri osoa (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua). Ziurtagiri horretan egiaztatu beharko dira eskatzailearen kalifikazio guztiak eta kalifikazio horiek lortu zitueneko datak.

b) Curriculum, eta bertan aipatzen diren merezimenduak egiaztatzeko egiaztagiriak edo ziurtagiriak. Agiri horien guztien bina kopia aurkeztuko dira.

c) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

d) Errolda-ziurtagiria, 185/2007 Dekretuaren seigarren puntuko 1.b) letra betetzen dela egiaztatzeko.

e) Laguntza-proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria laburra (gehienez ere 5 orrialde); kasu bakoitzean, gaiari buruzko ezagutza azalduko da, eta aukeratutako gairako profil akademiko eta profesional egokia duela erakusten duten merezimendu pertsonalak argudiatuko dira. Agiri horien guztien bina kopia aurkeztuko dira.

2015eko urriaren 28a, asteazkena

f) «Hirugarrenen alta» inprimaki ofiziala, agindu honen III. eranskinean azaltzen den eredu ofizialarekin bat datorrena.

**ESKATZEN DU**, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko urriaren 21eko Aginduaren bidez deitutako euskal nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresen inguruan ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko beketako bat ematea.

**ADIERAZTEN DU** ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik izan, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat.

....., 2015eko .....ren .....a.

Sinadura

---

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskatzen zaizkizun datuak «Teknologo eta ikertzaileentzako prestakuntza-bekak» izeneko fitxategi automatizatuan sartuko direla tratatzeko. Fitxategi hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko otsailaren 25eko Aginduan («Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak eta ez automatizatuak arautzen dituen») arautu da, 68. zenbakiarekin. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen den bezala. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari idazkia bidali beharko diozu, bera baita zure datuk tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.



## III. ERANSKINA

**DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA****A****HIRUGARRENAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

- (1) NAN/IFK .....
- (2) Izena eta bi abizen / Sozietatearen izena  
 .....  
 .....
- Helbidea .....
- Posta-kodea ..... Herria .....
- Lurraldea..... Herrialdea .....

**B****BANKUAREN DATUAK**

- (1) Bankua
- (2) Agentzia
- (3) KD  K/Korrontea
- (4) Jabea .....

OHARRA: kontu korrontearen jabeak hirugarren interesduna izan behar du.

**C**

Bankuaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

**D**

Hirugarren interesdunaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

**E**

Sailaren edo erakundearen onespena

Sinadura baimendua eta zigilua

Data / ..... / ..... / .....

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez eman dituzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Aipatutako lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

## INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A) Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1.– Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo, atzerritarren kasuan, pasaportearen zenbakia.

Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.

2.– Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.

Pertsona juridikoak: izena edo sozietate-izena.

B) Banku-datuak.

1.– Bankuaren kodea eta izena.

2.– Agentziaren kodea eta izena.

3.– Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol-digitua eta zenbakia adieraziko dira.

4.– Izena eta bi abizen, pertsona fisikoeak badira, eta izena edo sozietate-izena, pertsona juridikoak badira.

Kontu korrontearen jabeak hirugarren interesduna izan behar du.

C) Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

Banku-erakundearen sinaduraren eta zigiluaren orde, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularra dela dioen bankuaren agiria erabil daiteke.

D) Hirugarren interesdunaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

## EUSKARRI-DOKUMENTAZIOA

Nortasun agiri nazionalaren edo, atzerritarren kasuan, pasaportearen edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko da.